

## **GIZARTE ZERBITZUAK**

**Gizarte-bazterkeriako eta behar larriko egoerei aurre egiteko norbanakoei eta familiei emango zaizkien udal diru-laguntzak arautuko dituzten oinarri bereziak.**

Urretxuko Udalak izango duen lan-ildoetako bat ekonomia-krisiak norbanakoen eta familien arteko gizarte-interakzioa, autonomia eta gizarte-ongizatea bultzatzea da, sustapenean, prebentzioan, babesean eta asistentzia arloan garatuz bere funtzioa, funtsean izaera pertsonaleko eta harremanen mailako prestazio, programa eta zerbitzuen bidez, besteak beste krisi ekonomikoko egoerak sortutakoak.

Norbanakoen bazterkeria egoerak nahiz gizarte- eta lan-arloko bazterkeria egoerak arintzeko, eta herritarren gizarte-eskubideak benetan baliatzeko behar adina baliabide pertsonal, sozial edo ekonomikorik ez dutenen gizarteratzea errazteko, Urretxuko Udalak norbanakoentzako zein familientzako udal diru-laguntza sistema bat arautu eta zabaltzeko nahi du.



## **AREA SERVICIOS SOCIALES**

**Bases específicas que regulan la concesión de ayudas económicas individuales y familiares municipales para paliar situaciones de exclusión social y/o extrema necesidad.**

Uno de los ejes de trabajo del Ayuntamiento de Urretxu radica en favorecer la interacción social, la autonomía y el bienestar social de todas las personas y familias, desarrollando una función promotora, preventiva, protectora y asistencial, a través de prestaciones, programas y servicios de naturaleza fundamentalmente personal y relacional, originadas entre otros por la situación de crisis económica.

Con el fin de paliar situaciones de exclusión personal, social y laboral, y facilitar la inclusión de quienes carezcan de recursos personales, sociales o económicos suficientes para el ejercicio efectivo de los derechos sociales de los ciudadanos, el Ayuntamiento de Urretxu pretende normativizar y ampliar un sistema de ayudas económicas individuales y familiares municipales.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 6. artikuluan adierazten da herritar guztien gizarte-ongizatea sustatzea dela Gizarte Zerbitzuen Euskal sistemaren helburua, beste sistema eta politika publiko batzuekin koordinatuta arituz eta haiekin lankidetzan, biztanleria guztiaren gizarte-ongizatea lortzeko, eta funtsezko helburuetako bat hau izanik:

1. «Larrialdi-egoerek pertsonen eta familiei eragiten dizkieten beharrik aurrea hartu eta erantzutea».
2. «Bazterkeria egoerak prebenitu eta erantzutea, eta pertsona, familia eta taldeen gizarte-integrazioa sustatzea».

Hori dela eta, abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 16. artikuluan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren berezko prestazio ekonomikotzat hartzen dira gizarte-larrialdiko, gizarte-premiazko edo babesgabetasuneko egoerek eragindako ondorio ekonomikoak estaltzera edo leuntzera zuzendutakoak.

«Larrialdirako laguntza» kontzeptuaren funtsa, hain zuzen ere, une jakin batean (denbora-epea) eta norberaren borondateaz besteko edo aparteko arazoak eraginda sortutako baliabide ekonomikorik gabeko edo gutxiko egoera artatzeko premia larria da.

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, señala en el artículo 6.º que la finalidad del Sistema Vasco de Servicios Sociales es promover, en cooperación y coordinación con otros sistemas y políticas públicas, el bienestar social del conjunto de la población, siendo uno de sus objetivos esenciales, entre otros:

1. Prevenir y atender las necesidades personales y familiares originadas por las situaciones de emergencia.
2. Prevenir y atender las situaciones de exclusión y promover la integración social de las personas, de las familias y grupos.

Por ello, el artículo 16 de dicha Ley 12/2008, de 5 de diciembre, dice que se consideran prestaciones económicas propias del Sistema Vasco de Servicios Sociales las dirigidas a cubrir o paliar las consecuencias económicas de las situaciones de emergencia o urgencia social y desprotección.

La clave del concepto de ayuda de emergencia es precisamente la necesidad perentoria y urgente de atender una situación de carencia o estrechez de recursos económicos que se produce en un momento dado (plazo temporal), motivada por causas ajenas o sobrevenidas.



Urretxuko udala



Beraz, ezusteko gertaera batek edo aldizkako prestazio ekonomikoen ondoriozko baliabide ekonomiko urriek sortutako larrialdiko egoera ekonomikoak eta gizarte-bazterkeriako egoerak estaltzean datza. Udalak norbanakoei eta familiei emango dizkien diru-laguntzak premia-egoera, behar-beharrezkoen gabetasunera eta gizarte bazterkeriako egoeretara eramango gaituzten egoerak saihesteko baliabide aringarri modura, prebentzio eta gizarteratze helbururekin, erabiliko dira.

Udalaren diru-laguntza bat emateko gizarte-diagnostiko bat hartu behar da oinarritzat, hau da, larrialdi izaera duen premia-egoera, edota gizarteratzeko hitzarmen bat, edo jarduketa bat egiteko konpromiso bat ziurtatzen duen preskripzio teknikoa, eta betiere baliabide ekonomikoen gabeziak eragindako gizarte-bazterketako egoeren prebentzio gisa hartuko da.

### 1.- HELBURUA

Oinarri hauen xedea da Urretxuko udalerrian bizi diren norbanakoei eta familiei emango zaizkien diru-laguntzak ematea arautzea.

Zehatz esanda, diru-laguntza hauen helburua da gizarte-bazterkeria eta larrialdi-egoerek Urretxun bizi diren familiei sortutako beharrei aurrea hartu eta erantzutea.

Se trata pues de cubrir situaciones económicas de emergencia, así como de exclusión social provocadas por un acontecimiento inesperado y por la escasez de recursos económicos provenientes de prestaciones económicas de carácter periódico. Las ayudas económicas individuales y familiares municipales se utilizarán como un recurso paliativo, de prevención y de inserción que evita situaciones que pueden conllevar a privaciones, carencias de primera necesidad, y de exclusión social.

La concesión de una ayuda económica municipal debe de estar basada en un diagnóstico social, en una prescripción técnica que avala la situación de necesidad con carácter de emergencia y considerada como preventiva de situaciones de exclusión social sobrevenidas por la escasez de recursos económicos, así como de un convenio de inserción, o compromiso de actuación.

### 1.- OBJETO

Es objeto de las presentes bases la regulación del otorgamiento de ayudas económicas individuales y familiares a los residentes en el municipio de Urretxu.

En concreto, la finalidad de estas subvenciones es la de prevenir y atender las necesidades de las familias residentes en Urretxu originadas por la situación de emergencia y de exclusión social.

Horretarako, aldizkakotasun izaerarik gabeko diru-laguntzak emango dira, honako arlo hauetan sortutako gastuak estaltzeko:

- Etxebizitza alokatzea.
- Ko-errentamendua, azpierrentamendua, ostatu-ematea eta apopilotza.
- Etxebizitzarako fidantza
- Etxebizitzaren aseguruia.
- Zorrak (etxebizitza).
- Etxebizitzaren mantenua.
- Etxebizitzaren mailegua.
- Formazioa.
- Formaziorako garraioa.
- Oinarrizko beharrei dagozkien gastuak.
- Drogomenpekotasun arazoengatik EAEko zentro publiko edo hitzartuetan tratamendu programaren bat egiten ari diren pertsonentzako joan-etorriko gastuak. Edo bestelako adikzio psikologikoengatik (ludopatía, teknologia berriekiko menpekotasuna, e.a...) edo 14 eta 18 urte bitarteko nerabeen arrisku egoerengatik, familiarekin batera Norbera Programara doazenentzako joan-etorriko gastuak.
- Espetxeetan zigorpean edo behin-behineko espetxealdian dauden pertsonen sendikoei sorrarazitako garraio gastuak, haiei egindako bisitak direla eta.

Para ello se otorgaran recursos económicos de carácter no periódico para el gasto ocasionado de los siguientes conceptos:

- Alquiler de vivienda.
- Coarriendo, subarriendo, hospedaje, pupilaje.
- Fianza para vivienda
- Seguro de la vivienda.
- Endeudamiento (vivienda).
- Mantenimiento de la vivienda.
- Crédito de la vivienda.
- Formación.
- Transporte para formación.
- Gastos relativos a las necesidades primarias.
- Gastos de desplazamiento para las personas que se encuentren realizando algún programa de tratamiento en centros públicos o concertados de la CAPV por problemas de drogodependencias. O por adicciones psicológicas de otro tipo (como ludopatía, dependencia a nuevas tecnologías, etc.), o por situaciones de riesgo de adolescentes entre 14 y 18 años que acudan al Programa Norbera, junto con su familia.
- Gastos de desplazamientos originados a los familiares de personas penadas o en prisión preventiva internas en centros penitenciarios con motivo de las visitas que puedan realizar a las mismas.



Urretxuko udala

- Salbuespenezko izaeraz, hemen aurreikusiak ez dauden gizarte-larrialdiko beste kontzeptu - batzuen gastuetarako ere eman ahal izango dira diru-laguntzak, udal teknikariek baloratu ondoren.

Udalak emandako diru-laguntzek honako ezaugarriak izango dituzte:

a) Helburu jakin eta zehatz baterako izango dira, eta beraz, helburu horretarako baino ezingo dira erabili.

b) Laguntza horiek izaera subsidiarioa dute, eta, hala badagokio, indarrean den legerian aurreikusten diren eta onuradunak edo haren bizikidetzak unitateko edozein kidek nahiz, hala badagokio, etxebizitza edo bizitoki berean bizi diren beste pertsona batzuek jaso ditzaketen eduki ekonomikoko edozein motatako gizarte-baliabide eta prestazioen osagarriak.

c) Laguntzak ezin dira eskuz aldatu, eta, beraz, ezin izango dira:

- Obligazioen berme gisa eskaini.
- Laguntzen lagapena egin, ez osorik, ezta zati batean ere.
- Konpentsatu edo deskontatu, jaso behar ez ziren prestazioak itzultzeko izan ezik.
- Atxiki edo bahitu, aplikatzekoak diren Estatuko lege orokorretan aurreikusitako kasuetan eta mugekin izan ezik.



- Excepcionalmente, podrán subvencionarse el gasto de otros conceptos de emergencia social no contemplados y valorados por los técnicos.

Las ayudas económicas municipales deben de tener las siguientes características:

a) Tendrán carácter finalista, debiendo destinarse únicamente al objeto para el que hayan sido concebidas.

b) Tendrán carácter subsidiario y, en su caso, complementario de todo tipo de recursos y prestaciones de contenido económico previstas en estas bases, que pudieran corresponder a la persona beneficiaria a cualquiera de los miembros de su unidad de convivencia, así como, en su caso, a otras personas residentes en la misma vivienda o alojamiento.

c) Serán intransferibles, y, por tanto no podrán:

- Ofrecerse en garantía de obligaciones.
- Ser objeto de cesión total o parcial
- Ser objeto de compensación o descuento, salvo para el reintegro de las prestaciones indebidamente percibidas.
- Ser objeto de retención o embargo, salvo en los supuestos y con los límites previstos en la legislación general del Estado que resulte de aplicación.

d) Diru-laguntza izaera izango dute, eta horiek ematea Urretxuko Udalaren udal aurrekontuetan xede horietarako kreditua jarria egoteari egongo dira baldintzatuak.

e) Gizarteratzera eta/edo autonomia bultzatzera bideratuak daudenez, bakarka zein familia mailan hainbat jarduera egiteko konpromisoa egiteari lotuak egongo dira. Besteak beste, honako jarduerak zehaztuko dira:

- Drogen edo alkoholaren menpekotasunetik ateratzeko programa terapeutiko batean parte hartzea.
- Familiako esku-hartze programak.
- Esku-hartze psikosozialeko programak.
- Formazio programa.
- Teknikariak pertsona horiek gizarteratzeko egoki iritzitako edozein programa.

## 2. PERTSONA ETA FAMILIA ONURADUNAK

1. Oinarri hauetan araututako laguntzen pertsona edo familia onuradunen izaera izango dute Urretxun bizi diren pertsona eta familiekin, beti ere Urretxuko Udalaren Diru-laguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantzan zehaztua datorren onuradun izaera lortzea eragotziko duten zirkunstantzietakoren batean sartuak ez baldin badaude.

d) Tendrán naturaleza subvencional, quedando su concesión sujeta a la existencia de crédito consignado para esa finalidad en el Presupuesto Municipal del Ayuntamiento de Urretxu.

e) En tanto que son destinadas para facilitar la integración y/o la autonomía, estarán sujetas a la realización de un compromiso de actuaciones a nivel individual o familiar donde se fijarán entre otras actuaciones tales como:

- Tomar parte dentro de un programa terapéutico de deshabituación de drogas, alcohol.
- Programa de intervención familiar.
- Programa de intervención psicosocial.
- Programa de formación.
- El programa que estime el técnico correspondiente para su inserción social.

## 2. PERSONAS Y FAMILIAS BENEFICIARIAS

1. Tendrán la consideración de personas y familias beneficiarias de las ayudas reguladas en las presentes bases las personas y familias residentes en Urretxu, en quienes no concurra ninguna de las circunstancias impeditivas de alcanzar la condición de beneficiaria de las previstas en la Ordenanza Reguladora de la Concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Urretxu.



Urretxuko udala

Familiatzat hartuko da «kide bat baino gehiagoz osatutako pertsona-multzoa, etxebizitza berean bizi dena, odolkidetasunezko loturak izan ala ez, bizibide ekonomiko eta sozial bateratuak, eta elkartzen eta lotzen dituzten afektu-sentimenduak dituen».

2. Honako baldintzak beteko dituzten pertsona eta familiak eskatu ahal izango dituzte diru-laguntzak:

Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako indarrean dagoen araudian zehaztuak dauden betebeharrak bete beharko dituzte pertsona eta familiak.

Kasu guztietan, errodatzeari dagokionez, Urretxuko udalerrian erroldatuta egon eta bertan benetan bizi beharko dute pertsonak, gutxienez eskaria aurkeztu baino hiru urte lehenagotik, eta Euskal Autonomia Erkidegoan sei hilabetez.

#### 2.1. Salbuespenak:

- Adin txikikoak dituzten familiak, eta 2025ko urtarrilaren 1a baino lehen 2024ko ekitaldian Urretxuko Udalaren udal laguntzak jaso dituztenak.
- Salbuespenak egin ahal izango dira gutxienezko adinaren baldintzan, baldin eta oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Gizarte Sustapeneko Udal Batzordearen txostenak hala baloratzen badu.



Se considera familia «al núcleo de personas formadas por más de un miembro y que conviven bajo el mismo techo, con vínculos consanguíneos o no, con un modo de existencia económico y social comunes con sentimientos afectivos que los unen y aglutinan».

2. Podrán solicitar subvenciones las personas y familias que reúnan los siguientes requisitos:

Las personas y familias deberán reunir los requisitos señalados en la normativa vigente relativa a las Ayudas de Emergencia Social.

En cuanto al empadronamiento, en todos los casos, las personas deberán estar empadronadas y tener la residencia efectiva en el municipio de Urretxu con tres meses de antelación a la fecha de presentación de la solicitud, y 6 meses en la Comunidad Autónoma Vasca.

#### 2.1 Excepciones:

- Las familias con menores que anteriormente a la fecha de 1 de enero del año 2025 hayan sido perceptores dentro de ayudas municipales del Ayuntamiento de Urretxu del ejercicio 2024.
- Se podrán realizar excepciones en el requisito de la edad mínima, si el informe de los servicios sociales de bases y la Comisión municipal de Promoción Social así lo valora.

- Erroldatze eta bizikidetasuna. Joan-etorriko gastuetan hauek izango dira onuradunak:

a) Aske ez dauden pertsonen sendikoak edo hurbilekoak, etxe berean bizi diren edo ez alde batera utzita, Urretxun erroldatuta daudenak. Sendikoen kasuan, odolkidetasun eta ezkontza-ahaidetasun 2. mailara arte izango da kontuan (gurasoak, aita-amaginarrebak, seme-alabak, suhia/erraina, aiton-amonak, anai-arrebak, koinatu/koinata eta bilobak). Udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuak bidezko deritzon moduan egiaztatu beharko da hurbileko izaera.

b) Mendekotasuna gainditzeko programak egiten ari diren pertsonen laguntzaileak (senide edo hurbileko), etxe berean bizi diren edo ez alde batera utzita.

### 3. ESKAERAK ETA AURKEZTEKO EPEA

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita aurkeztu beharko dira eskaerak, 2025ko abenduaren 31ra bitartean. Banakako diru-laguntzak eta familiarrak ordaintzeko adina aurrekontu egon beharko du, eta epea horri lotua geratuko da.

Araudi honetan araututako diru-laguntzak jasotzeko interesa duten pertsonak eskaera bat bete eta aurkeztu beharko dute udaletxean, horretarako propio eskuratuko zaien inprimakian.

- Empadronamiento y convivencia. En el caso de gastos de desplazamiento, los beneficiarios serán :

-

a) los familiares o allegados de las personas privadas de libertad, con independencia de que convivan bajo el mismo techo, que estén empadronados en Urretxu. En el caso de familiares se tendrá en cuenta hasta el 2º grado de consanguinidad y afinidad (padres/madres, suegro/as, hijo/as, yerno/nuera, abuelo/as, hermano/as, cuñado/as y nieto/as).

La circunstancia de allegado deberá acreditarse de la forma que estime procedente el servicio municipal social de base.

b) los familiares o allegados acompañantes de las personas que están realizando los programas de deshabitación, con independencia de que convivan o no bajo el mismo techo.

### 3. SOLICITUDES Y PLAZO DE PRESENTACIÓN

Las solicitudes deberán presentarse a partir del día siguiente a la publicación de las presentes Bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y hasta el 31 de diciembre de 2025. Y este estará vinculado a que se cuente con presupuesto para el pago de las ayudas económicas individuales y familiares.

Las personas que estén interesadas en percibir las ayudas económicas reguladas en la presente normativa deberán cumplimentar y presentar en el Ayuntamiento una solicitud en el impreso



Eskaera-orrian honako hau azalduko da:

1. Laguntzaren tipologia
2. Laguntzaren kontzeptua
3. Eskatutako zenbatekoa
4. Familia unitatearen diru-sarreak
5. Aitortuko datuen zinpeko aitortpena
6. Auzkeztutako datuak egiaztatu ahal izateko baimena ematea administrazioari.

Eskaerak osatu gabe egonez gero, 10 eguneko epea emango da hutsunea konpontzeko, eta epe hori igarota eskaera osatu ez bada, artxibatu egingo da beste tramiterik gabe.

#### 4. ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK ETA INFORMAZIOAK.

Eskaerarekin batera, eskatzaileak honako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

1.- 2025erako diru-laguntzak emateko Oinarri Orokorreko 8 artikuluan xedatutako dokumentazio orokorra, jarraian zehazten dena:

a) Eskaera egiten duenaren **nortasun** juridikoa egiaztatze dokumentuak

NAN edo baliokidea.

específico que se les facilitará a tal efecto.

En el impreso de solicitud se señalará:

1. Tipología de ayuda.
2. Concepto de Ayuda.
3. Cuantía solicitada.
4. Ingresos de la unidad familiar.
5. Declaración jurada de los datos declarados
6. Autorización a la administración para que pueda verificar donde proceda los datos presentados.

En el caso que las solicitudes estuvieran incompletas, se concederá un plazo de 10 días para la reparación de la carencia y, una vez transcurrido este plazo sin que se haya completado la solicitud, se procederá al archivo de la misma sin más trámites

#### 4. DOCUMENTOS E INFORMACIONES QUE DEBEN ACOMPAÑARSE A LA SOLICITUD.

Junto con la solicitud, la entidad solicitante deberá presentar la siguiente documentación:

1.- La documentación general exigida en el artículo 8 de las Bases generales para el otorgamiento de subvenciones para el año 2025, que se detalla a continuación:

a) Documentos acreditativos de la **personalidad** del/la solicitante:

DNI o documento equivalente.

b) Eskatzailearen **banku-kontuaren titulartasuna** frogatzen duen agiria, eskatzailearen nortasunarekin bat etorriko dena (agiri hauetako edozeinek balioko du horretarako: bankuko kontu-laburpena, libreta edo bankuak egindako egiaztagiria).

c) **Zinpeko aitorpena**, dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearekin zigortuta ez dagoela edo horretarako gaitasunik ez duela esanez legezko debekuan sartuta ez dagoela azalduko duena. Debeku horietan barne izango da sexuagakiko diskriminazioaren ondorioz jasotako debekua, beti ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen seigarren Azken Xedapenean jasotakoari jarraiki jasandako debekuak.

2.- Jarraian adierazten den dokumentazio espezifikoa:

- Familia liburua, balegokio.
- Lanbiden izena emana egotearen txartela, eta langabeziagatik prestaziorik ez jasotzearen egiaztagiria, balegokio.
- Banatze-sententzia eta hitzarmen arautzailea, balegokio.
- Errentamendu-kontratua, balegokio.
- Langile-bizitza, balegokio.
- Sendagilearen egiaztagiria, balegokio.
- Betaurrekoak, 2 aurrekontu.

b) Documento justificativo de **la titularidad de la cuenta bancaria** del/la solicitante que tiene que coincidir con la identidad de la persona solicitante (extracto bancario, libreta, certificado emitido por la entidad bancaria...)

c) **Declaración jurada** de no estar sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni de hallarse incurso en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

2.- La documentación específica siguiente:

- Libro de familia, en su caso.
- Tarjeta de inscripción en Lanbide y certificado de no percibir prestación por desempleo en su caso.
- Sentencia de separación y convenio regulador en su caso.
- Contrato de arrendamiento, en su caso.
- Vida laboral, en su caso.
- Certificado médico, en su caso.
- Calificación de minusvalía, en su caso.
- Gafas. 2 presupuestos.



Urretxuko udala



- Dentista, 2 aurrekontu.
- Presoa espetxean egoteari buruzko ziurtagiria, balegokio.
- Tratamendu zentroak egindako justifikagiria, gutxienez 2 hilabeteko tratamendua eduki izana jakinaraziz, laguntzailearen beharra (hala badagokio).
- Ibilgailu partikularrean joan baldin bada, zinpeko aitorpena aurkeztu beharko da, garraio publikoan joan ezina eta ibilgailu partikularrean joan beste biderik ez dagoela argudiatuz.
- Beste hainbat, balegokio

2025erako diru-laguntzak emateko Oinarri Orokorreko 8 artikulua xedatzen duen arabera, Urretxuko Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetan ematen dituen diru-laguntzak eskuratzeko, datuen bitartekotzako plataformatik eta beste administrazio batzuetatik (NISAE), zehazki:

- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.
- Foru Ogasunetik zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.
- Kontu maialren kontsulta.
- Ondasun higiezinaren kontsulta.
- PFEZren kontsulta.

- Dentista. 2 presupuestos.
- Certificado de estancia en prisión del preso/a, en su caso
- Justificante expedido por el Centro de Tratamiento, donde se notifique haber estado como mínimo 2 meses en tratamiento, la exigencia de acompañante (en su caso).
- En el supuesto de acudir en vehículo particular, se deberá presentar declaración jurada que argumente la imposibilidad de acceder en transporte público y no haya más remedio que acudir en vehículo particular.
- Otros, en su caso.

Tal y como establece el artículo 8 de las Bases generales para el otorgamiento de subvenciones para el año 2025, el Ayuntamiento de Urretxu va a verificar los siguientes requisitos para acceder a las subvenciones que otorgue en esta convocatoria, desde la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones, NISAE, en concreto:

- Certificado de estar al corriente de sus obligaciones frente a la Seguridad Social.
- Certificado de estar al corriente de sus obligaciones tributarias frente a las Haciendas Forales.
- Consulta nivel nivel de cuentas.
- Consulta bienes inmuebles.
- Consulta IRPF.

Interesdunak horiek erabiltzearen aurka egiten badu, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Urretxuko Udalak ofizioz egiaztatuko du Udalarekiko betebeharrak betetzen direla

Aurkeztutako prozesuak behar bezala ebaluatzeko eta erabakitzeke beharrezkotzat jotzen duen informazio gehigarri oro eskatu ahal izango du Gizarte Zerbitzuen sailak.

Eskariak osatu gabe agertuz gero, 10 eguneko epea izango da hutsuneak betetzeko; epe hori igarotzen bada eskaria osatu gabe, artxibatu egingo da, beste inolako tramiterik gabe

## 6. DIRU-LAGUNTZEN XEDE DIREN KONTZEPTUAK

Laguntza hauek eskuratzeko, dauden laguntza publiko guztiak baliatu beharko dira aurrez.

Honakoen moduko laguntzak sartuko dira:

### 1. Etxebizitza:

Etxebizitza librearen alokairua, etxebizitza ofizialaren alokairua, etxebizitzaren fidantza, ko-errentamendua, azpi-errentamendua, ostatu-ematea eta apopilotza.

Etxebizitzaren mantentze-lanak, argia, gasa, jabekide elkartearen gastuak.

Cuando la persona interesada se oponga al uso de los mismos deberá aportar los datos o documentos correspondientes.

Las certificaciones de estar al corriente con el Ayuntamiento de Urretxu se realizará de oficio.

El departamento de Servicios Sociales podrá solicitar cuanta información adicional entienda necesaria para la correcta evaluación y resolución de los procesos que se presenten

En el caso que las solicitudes estuvieran incompletas, se concederá un plazo de 10 días para la reparación de la carencia y, una vez transcurrido este plazo sin que se haya completado la solicitud, se procederá al archivo de la misma sin más trámites.

## 6. CONCEPTOS OBJETO DE LAS AYUDAS ECONÓMICAS.

Para acceder a estas ayudas se tendrá que hacer valer previamente de todas las ayudas públicas existentes.

Se incluirán las ayudas tales como:

### 1. Vivienda:

Alquiler vivienda libre, alquiler vivienda oficial, fianza vivienda, co-arriendo, subarriendo, hospedaje, pupilaje.

Mantenimiento de vivienda, luz, gas, copropietarios.

Seguro de la vivienda.

Crédito de la vivienda.



Urretxuko udala

Etxebizitzaren aseguruia.  
Etxebizitzaren kreditua.  
Aurreko kontzeptuengatik zorpetzeak.

## 2. Formazioa.

Lanbide Heziketa graduiko edo Helduen Heziketa Iraunkorreko formazio ikastaroetako matrikula eta hileroko tasa.

Aipatu berri diren ikastaroetara, edo Lanbideko prestakuntza-ikastaroetara joateko garraioa. Ezarpen kostua, erabilitako garraio publikorako ezarriko den ekonomikoa izango da. Ibilgailu pribatua erabiliko balitz ere, garraio publikoaren kostua erabiliko da.

Familiako eskuhartze programan parte hartuko duten edo baztertze arriskuan dauden familietako adin txikikoentzako klase partikularrak edo/eta eskolaz kanpoko jarduerak.

## 3. Garraio gastuak

Ondorengo arrazoiengatik EAEko zentro publiko edo hitzartuetan tratamendu programaren bat egiten ari diren pertsonentzako joan-etorriko gastuak: drogomenpekotasun arazoak, bestelako adikzio psikologikoak (ludopatía, teknologia berriekiko menpekotasuna, e.a...) edo Izan Fundazioaren Norbera Programara doazen 14 eta 18 urte bitarteko nerabeak. Garraio gastutzat hartzen dira garraio publikoan nahiz norberaren ibilgailuan egindakoak,



Endeudamiento por los conceptos anteriores.

## 2. Formación:

Matricula, y tasa mensual en cursos de formación de grado FP o Educación Permanente de Adultos.

Transporte a los cursos anteriormente mencionados o de cursos de formación de Lanbide. El coste de aplicación será el aplicado para el transporte público utilizado, el más económico. Si se utilizase vehículo privado se utilizará igualmente el coste de transporte público.

Clases particulares y/o actividades extraescolares para menores que tomen parte del programa de intervención familiar o pertenezcan a familias en riesgo de exclusión.

## 3. Gastos de transporte:

Gastos de desplazamiento para las personas que se encuentren realizando algún programa de tratamiento en centros públicos o concertados de la CAPV por: problemas de drogodependencias, por adicciones psicológicas de otro tipo (como ludopatía, dependencia a nuevas tecnologías, etc.), o adolescentes entre 14 y 18 años que acuden al Programa Norbera de la Fundación Izan. Se considerarán gastos de transporte tanto los realizados en

Urretxuko udalerritik tratamendu zentroraino.

Espetxeetan zigorpean edo behin-behineko espetxealdian dauden pertsonen sendikoei sorrazitako garraio gastuak, haiei egindako bisitak direla eta.

4. Lehen mailako beharrak, besteak beste, hauetarako: osasun gastuak, sendagaiak, betaurrekoak, dentista, eskolako jangela, janaria, jantzia.

Udal laguntza hauen xede diren kontzeptuak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko dira.

7. TRAMITAZIOAREN UNITATE ADMINISTRATIBO ARDURADUNA  
Urretxuko Udaleko Gizarte Zerbitzuek bideratuko dituzte eskaerak.

#### 8. EBAZPENA

Eskaerak aztertu ondoren, gizarte langileek txosten teknikoa egin eta gero, Herritarrak Batzordeko lehendakariak, hala badagokio batzordeak diktamena emanda, erabaki proposamena luzatuko dio Alkatetzari, eta organo honek izango du onartzeko eskumena

#### 9. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Eskaerak baloratzeko irizpideak honako hauek izango dira:

transporte público como en vehículo propio desde el municipio de Urretxu hasta el centro de tratamiento.

Gastos de desplazamientos originados a los familiares de personas penadas o en prisión preventiva internas en centros penitenciarios con motivo de las visitas que puedan realizar a las mismas.

4. Necesidades primarias entre otras para: gastos sanitarios, medicación, gafas, dentista, comedor escolar, comida, vestido.

Los conceptos objeto de estas ayudas municipales deben iniciarse a partir del 1 de enero de 2025.

7. UNIDAD ADMINISTRATIVA ENCARGADA DE AL TRAMITACIÓN  
Las solicitudes serán tramitadas por los Servicios Sociales del Ayuntamiento de Urretxu.

#### 8. RESOLUCIÓN

Una vez estudiadas las solicitudes, y emitido el informe técnico por parte de los Trabajadores Sociales, la Presidencia de la Comisión de Ciudadanía, previo dictamen, en su caso, de esta, elevará la propuesta de acuerdo a la Alcaldía que será el órgano competente para su aprobación.

#### 9. CRITERIOS DE VALORACIÓN

Los criterios de valoración de las solicitudes serán los siguientes:



Urretxuko udala

a) Baremo ekonomikoa:

Udalaren diru-laguntzak emateko erabiliko den baremo ekonomikoa Eusko Jaurlaritzak ekitaldi honetan Gizarte Larrialdietarako Laguntzak emateko erabiliko duena bera izango da.

Dena dela, honako salbuespenak egingo dira:

- Pertsona autonomoen egoera ekonomikoari dagokionez, diru-laguntza eskaria egiten den uneko egoera ekonomikoa hartuko da kontuan.
- Ondasun higiezin bat baino gehiago dutenen kasuan, eta horiek bahituta badaude, ez dira kontabilizatuko higiezin hori edo horiek, ez eta lokal bat edo bigarren garaje bat salgai jarria badago, edo salbuespeneko beste egoera batzuk, baloragarriak.
- Joan-etorriko gastuen kasuan, bidaiak berak sorrarazitako gastua kengarria izango da.

b) Errendimenduak zehaztea:

Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema arautzen duen abenduaren 22ko 14/2022 Legean zehaztua datorrena ezarriko da.



a) Baremo económico.

El baremo económico de concesión de estas Ayudas económicas municipales será el mismo que establece para las Ayudas de Emergencia Social el Gobierno Vasco este ejercicio.

No obstante, se realizarán las siguientes salvedades:

- En relación a la situación económica de las personas autónomas se contabilizará la situación económica del momento en que se realice la solicitud de la ayuda económica.
- Los casos que cuenten más de un bien inmueble y los mismos se encuentren embargados, no se contabilizaran el mismo o los mismos inmuebles, ni si tiene un local o segundo garaje puesto en venta u otras situaciones excepcionales, valorables.
- En el caso de los gastos por desplazamiento será gasto deducible el ocasionado por el propio viaje.

b) Determinación de los rendimientos:

Será de aplicación lo que se determine en la ley 14/2022, de 22 de diciembre, del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión

Dagokion teknikariak aztertuko du, eta diagnosia, balorazioa eta gizarte-ebaluazioa egingo ditu, txostena osatuko du eta dagokion proposamena egingo. Horretarako adierazle hauek izango ditu kontuan: familia, etxebizitza, osasuna, ekonomikoa, lanekoa, eskolakoa, osasunekoa, gizartekoa.

Oinarri hauen 2. artikuluari egiten dio aipamen.

1. Hala badagokio eman daitezkeen diru-laguntzak Urretxuko Udalaren 2025eko Aurrekontu Orokorraren kargura finantzatuko dira, 20.000 euroko aurrekontua.

Aurrekontuko diru kopuruak ezin baditu estali eskaera guztiak, baremoaren arabera minorazioa aplikatuko da kontzeptuetarako ezarrita dauden zenbatekoetan.

La/el técnico correspondiente estudiará, hará el diagnóstico, valoración, evaluación social, y realizará el informe y propuesta correspondiente. Para ello tendrá en cuenta los indicadores de familia, vivienda, salud, económica, laboral, escolar, social.

Hace referencia al artículo 2 de estas bases.

1. Las ayudas económicas que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo al Presupuesto General del Ayuntamiento de Urretxu del año 2025 cuyo asciende a la cantidad de 20.000 euros.

Si la dotación presupuestaria no alcanzara a cubrir el total de las solicitudes, según el baremo se aplicará una minoración en las cuantías económicas establecidas para los conceptos.





Urretxuko udala

2. Oinarri hauen xede diren diru-laguntzak xede bereko beste diru laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak izango dira, edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandakoak izan, estatukoak, Europako Batasunekoak edo nazioarteko erakundeek izanda ere; betiere ez bada dagokion jarduketaren kostua gainditzen, eta horren inguruan beste diru-laguntzak arautzen dituzten araudiek ezar dezaketenaren kalterik gabe.

3. Oinarri hauetan araututako diru-laguntzen zenbatekoak, horri bakarka edota bestelako administrazio publikoen edo erakunde publiko nahiz pribatuen diru-laguntza edota bestelako laguntzekin bateratua, ez du inola ere onuradunak aurrera eraman beharreko jardueraren kostua gaindituko.

#### 11. DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA GASTU HAUTAGARRIEN XEHETASUNA.

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA € URTEAN
Etxebizitzaren alokairua	3.000
a) Librea	1.500
b) Ofiziala	1.500
c)	1.500
Koerrentamendua, azpierrementamendua, ostatu-	



2. Las ayudas económicas objeto de las presentes bases serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, siempre que no rebase el costo de la tipología de la ayuda solicitada, sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa de las otras subvenciones concurrentes.

3. El importe de las subvenciones reguladas en estas bases en ningún caso podrá ser de tal cuantía que aisladamente, o en concurrencia con subvenciones o ayudas de otras administraciones públicas, o de otros entes públicos o privados, supere el coste de las ayudas económicas solicitadas

#### 11. CUANTÍA DE LAS SUBVENCIONES Y DETALLE DE LOS GASTOS ELEGIBLES.

CONCEPTO	CUANTIA ANUAL €
Alquiler de vivienda	3.000
a) Libre	1.500
b) Oficial	1.500
c) Coarriendo, subarriendo, pupilaje, hospedaje	1.500

ematea, apopilotza d) Fiantza	
Etxebizitzaren hipoteka	3.000
Etxeko mantenua Etxeko aseguruua, argia, gasa, jabekideak	1.110
Oinarrizko behar larriak: Osasun gatuak, botikak, betaurrekoak, dentista, eskolako jangela, otorduak, arropak, jatorrizkoa lurraldera itzultzea.	1.110
Joan-etorriko gastuak (0,29 €/km)	450€/Bidaia
Formazio gastuak	500

Diru-laguntzen gehieneko zenbatekoak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baremoetan 2024. urte honetarako ezarria dagoen segmentazioarekin bat etorriko dira.

Dena dela, inolako familia-unitatek ezingo du jaso, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eta udalak Norbanakoei emandako Laguntzak batuta, urtean honako zenbatekoak baino gehiago:

d) Fianza	
Hipoteca de vivienda	3.000
Mantenimiento de vivienda: Seguro de la vivienda Luz. Gas, copropietarios	1.110
Necesidades primarias Gastos sanitarios, medicación,gafas, dentista,comedor escolar, comida, vestido,retorno al país de origen.	1.110
Gastos desplazamientos (0,29 €/km)	450€/Viaje
Gastos formación	500

Los importes máximos de las ayudas económicas serán conformes con la segmentación establecida en los baremos de ayudas de emergencia social para este año 2024.

No obstante, ninguna unidad familiar podrá exceder de percibir entre la suma de las Ayudas de emergencia Social y Ayudas Individuales municipales las siguientes cuantías anuales.



Urretxuko udala



<i>Petsona kop.</i>	<i>Urteko diru-kopurua</i>
1	3.300
2	3.500
3	3.750
4 edo gehiago	4.000

Joan-etorriko gastuetarako, urtekoa gehienez 4.050 € izango da.

<i>N.º de personas</i>	<i>Cuantía económica actual</i>
1	3.300
2	3.500
3	3.750
4 o más	4.000

En el supuesto de los gastos por desplazamiento, el máximo anual será de 4.050 €.

## 12. PERTSONA ETA FAMILIA ONURADUNEK DITUZTEN BETEBEHAR ETA KONPROMISOAK

Pertsona eta familia onuradunek diru-laguntza hauek onartzeak esan nahi du izaera orokorrarekin Urretxuko Udalaren Diru-laguntzak emateko Ordenantza Arautzailean zehaztuak datozen betebeharrek beteko direla.

Edonola ere, onuradunak:

1. Jasotako diru-laguntza itzuli beharko du, baldin eta laguntza edo diru-laguntza hori emateko ezarriak dauden baldintzak betetzen ez baditu, edo gauzatu duen jardueraren kostua baino handiagoa bada jaso duen diru-laguntza.

2. Espedientea izapidetzen ari den departamenduak, Udalaren kontu-hartzaileak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo beste organo eskudunen batek eskatutako informazioa emateko betebeharra du.

## 12. OBLIGACIONES Y COMPROMISOS DE LAS PERSONAS Y FAMILIAS BENEFICIARIAS

La aceptación de la ayuda económica por parte de las personas y familias beneficiarias implica la sujeción a las obligaciones establecidas con carácter general en la Ordenanza Reguladora de Subvenciones del Ayuntamiento de Urretxu.

En todo caso, la persona beneficiaria tendrá:

1. La obligación de reintegrar la ayuda en caso de incumplimiento de las condiciones establecidas para la concesión de la ayuda o subvención, o del exceso obtenido sobre el coste de la actividad desarrollada.

2. La obligación de facilitar cuanta información le sea requerida por el Departamento que tramita el expediente, la Intervención del Ayuntamiento, el Tribunal Vasco de Cuentas Publicas u otros órganos competentes.

3. Hartu dituen laguntzak horiek emandako helburuetarako erabili beharko ditu.

4. Legozkiokeen eduki ekonomikoko eskubide edo prestazio guztiak gauzatzeari, hala eskaria egin aurrekoak, nola laguntzak jasotzeko epealdian.

5. Arauz zehaztuko den epean, prestazioak eskuratzea ekarriko luketen betebeharrak betetzeari dagokionez sortutako gertaeren berri eman beharko du. Astebeteko epean jakinarazi beharko du pertsona onuradunaren ohiko bizilekuaren helbidean sortzen den edozein aldaketa.

### 13. ORDAINKETA MODUA ETA EPEAK

Onartutako diru-laguntza ordainketa bakarrean eta modu honetan egingo da:

Diru-laguntzaren helburua bete dela justifikatzen denean ordainduko da diru-laguntza hori.

Dena dela, diru-laguntza emateko hitzarmen edo ebazpenean onartu ahal izango da egiaztatze hori egin aurretik egitea ordainketak, diru-laguntzaren helburu den ekimenak berekin lekartzakeen jarduerak burutu ahal izateko.

### 14. JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUA

3. Aplicar las prestaciones recibidas a la finalidad para la que se hubieran otorgado.

4. Hacer valer todo derecho o prestación de contenido económica que le pudiera corresponder, tanto de carácter previo a la solicitud como durante el periodo de percepción de las ayudas.

5. Comunicar, en el plazo que se establezca reglamentariamente, los hechos sobrevenidos en relación con el cumplimiento de los requisitos que pudieran dar lugar al acceso a las prestaciones. Comunicar en el plazo de una semana, cualquier cambio relativo al domicilio de residencia habitual de la persona beneficiaria.

### 13. FORMA Y PLAZOS DE PAGO

La subvención concedida será abonada en un único pago del modo siguiente:

El abono de la subvención se realizará previa justificación del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió.

No obstante, en el convenio o resolución de la concesión de la ayuda podrá aprobarse la realización de pagos anticipados con carácter previo a la justificación, como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención

### 14. PLAZO Y FORMA DE JUSTIFICACIÓN



Urretxuko udala

Laguntzak justifikatzeko epeak gehienez bi hilabetekoak izango dira, diru-laguntza jasotzen denetik kontatuta.

Oinarri hauen bidez arautu nahi diren diru-laguntzak justifikatzeko, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da, oro har:

- a) Merkataritzako trafiko juridikoan froga balioa duten faktura edo dokumentuak, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazio, haren zenbateko, jaulkipen-data eta ordainketa-datarekin.
- b) Alokairu-ordainketak dagokion banku-sarreraren dokumentuarekin egiaztatu beharko dira.
- c) Tratamendu zentroetara joateko garraio gastuak zentroak berak egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira, asistentzia egunak adieraziz, eta tratamendura doan pertsona bakarrik edo lagunduta joan den, hilerro, eta erabilitako garraioaren hileko abonua aurkeztu beharko da.
- d) Espetxeetara joateko garraio gastuak egindako bidaien agirien bidez justifikatuko dira.
- e) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko izan diren beste diru-sarrera edo diru-laguntzen zerrenda zehatza, haien zenbatekoarekin eta jatorriarekin.



Los plazos máximos de justificación de las ayudas serán de dos meses desde la percepción de la prestación económica.

La justificación de las subvenciones objeto de las presentes bases contendrá con carácter general, la siguiente documentación:

- a) Las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y fecha de pago.
- b) Los pagos de alquiler deberán demostrarse con el documento de ingreso bancario correspondiente.
- c) Los gastos de desplazamiento a centros de tratamiento se acreditarán mediante certificado emitido por el centro al que se acude, indicando expresamente los días de asistencia y si la persona que acude al tratamiento ha acudido sola o acompañada, cada mes, y se deberá presentar el abono mensual del transporte utilizado.
- d) Los gastos de desplazamiento a centros internamiento se acreditarán mediante el justificante de los viajes realizados.
- e) Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada, con indicación del importe y su procedencia.

Diru-laguntza justifikatzeko ezarritako epea igaro egiten bada oinarri honetan adierazitako agiriak aurkeztu gabe, horretarako eskumena duen organoak eskatzaileari eskatuko dio agiri horiek aurkez ditzala 15 eguneko epean. Epe hori betetzen denean ez baditu eskatutako agiri horiek aurkeztu, 17. klausulak aurreikusiak dauden ondorioak sortuko dira.

Eskatzailea behartua dago 4 urtean gordetzera diruz lagundu den jarduera burutzeak sortu dizkion gastuen egiaztagiriak, bai eta jasotako diru-laguntza hori zer-nola erabili den diotenak ere. Aipatutako epe hori adierazitako justifikazioa aurkezteko ezarria dagoen epealdia amaitzen denetik hasiko da zenbatzen aipatutako epe hori.

Oinarri honetan zehaztutako agiriak aurkeztu ondoren, Gizarte Zerbitzuek horien egiaztatzea egingo dute. Egiaztatze horren ondorioz aterako balitz aurrekontu zenbagarriaren kostu justifikatua txikiagoa izan dela eman zaion diru-laguntza baino, edota ez direla bete, osorik edo zati batean, ekimena justifikatzeko zehaztutako baldintzak, edota hura emateko jarri ziren helburuak, egoera horren berri emango zaio erakunde interesatuari, egindako egiaztapenarekin batera, eta 17. klausulak aurreikusia dagoen prozedurari ekingo zaio.

Transcurrido el plazo establecido para la justificación de la subvención sin que se hubiese presentado la documentación a que se refiere esta base, el órgano competente requerirá al solicitante para que en el plazo de 15 días aporte la misma. La falta de presentación de la justificación, transcurrido este nuevo plazo, tendrá los efectos previstos en la cláusula. 17.

La persona solicitante está obligado a conservar, durante un plazo de 4 años, los justificantes de la realización de la actividad que fundamenta la concesión de la ayuda, así como la aplicación de los fondos percibidos. El citado plazo computará a partir del momento en que finalice el periodo establecido para presentar la citada justificación.

Una vez presentada la documentación señalada en esta base, se realizará por parte del departamento de Servicios Sociales la correspondiente comprobación. Si como resultado de dicha comprobación se dedujera que el coste justificado del presupuesto computable ha sido inferior a la subvención abonada o que se han incumplido, total o parcialmente, los requisitos establecidos para la justificación o los fines para los que fue concedida la misma, se comunicará tal circunstancia a la entidad interesada junto a los resultados de la comprobación realizada y se iniciará el procedimiento previsto en la cláusula 17. de la Ordenanza reguladora de la concesión

de subvenciones del Ayuntamiento de Urretxu

#### 15. EBAZPENA ALDATZEA

Laguntza ematen duen organoak emate ebazpena ofizioz aldatu ahal izango du, aurrez interesatuari entzunaldia eskainita eta laguntza eman aurretik, diru-laguntzak ematerakoan kontuan izandako baldintzen aldaketak interes publikoko helburua lortzea eragozten edo zailtzen badu, eta onuradunari ez bazaio kalte ekonomikorik eragiten.

Dagozkion diru-laguntzak emateko prozedura amaitu ondoren laguntzei uko egiteak gertatzen badira onuradunen artean, soberan legokeen diru-kopuru hori banatu egin ahal izango da aldeko kalifikazioa lortu arren zegoen aurrekontua agortu izanagatik kanpoan geratutakoen artean. Horrelakoetan, diru horiek eskari berriei emango zaizkie.

#### 16. DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEA

Onuradunak ez baditu oinarri hauetan eta ezargarri diren gainerako araudietan ezarritako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen, diru-laguntza jasotzeko eskubidea, guztiz edo zati batean, galduztat aitortuko zaio, eta diru-laguntza osoa edo zati bat eta dagozkion berandutza interesak itzuli beharko ditu, Urretxuko Udalaren diru-laguntzak emateko udal ordenantzaren 17. artikuluan xedatutakoaren arabera.

#### 15. MODIFICACIÓN DE LA RESOLUCIÓN.

El órgano concedente podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia del beneficiario y antes de la aplicación de los fondos, cuando la alteración de las condiciones técnicas tenidas en cuenta para la concesión impida o dificulte la concesión del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos al beneficiario.

En el caso de que, finalizado el procedimiento de concesión de las subvenciones correspondientes, se produzcan renunciaciones entre los beneficiarios, el importe excedentario se podrá asignar a las ayudas que, habiendo recibido una calificación favorable, hubiesen quedado fuera del reparto por haberse agotado el presupuesto disponible. En estos casos, los importes se otorgarán a las nuevas solicitudes

#### 16. REINTEGRO DE LAS SUBVENCIONES.

El incumplimiento por parte del beneficiario de cualquiera de los requisitos y obligaciones establecidos en las presentes bases y demás normativa aplicable, dará lugar a la declaración de la pérdida total o parcial del derecho a la percepción de la ayuda y a la obligación de reintegrar esta total o parcialmente junto con los intereses de demora

Proportzionaltasun irizpideak erabiliko dira ez-betetzeak mailakatzeko, eta egindako jardueren eta prozesu guztiaren eta jasotako zenbatekoaren arteko proportzioaren arabera kalkulatuko dira.

Emandako laguntzaren zenbatekoa, bakarka edo bestelako administrazio publikoen edo erakunde publiko nahiz pribatuen, estatuko zein nazioarteko, diru-laguntzekin edota bestelako laguntzekin batuta, handiagoa bada onuradunak aurrera eraman beharreko jardueraren kostua baino, itzuli egin beharko da egindako jardueraren kostuaz gainetik eskuratutako diru kopurua.

#### 17. ARAUDI APLIKAGARRIA

Oinarri hauen xede diren diru-laguntzei, bertan ezarritakoaz gain, Urretxuko Udalaren diru-laguntzak emateko Udal Ordenantza ere aplikatuko zaie.

Oinarri hauetan aurreikusia ez dagoen guztirako Diru-laguntzen gaineko 38/2001 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, eta hura garatzen duen Erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa, izango dira aplikagarri.

correspondientes, conforme a lo dispuesto en el artículo 17 de la Ordenanza Municipal de subvenciones del Ayuntamiento de Urretxu.

Para graduar los incumplimientos se utilizarán criterios de proporcionalidad, que serán estimados en función de las acciones realizadas respecto a la totalidad de las mismas y a los importes percibidos.

Cuando el importe de las ayudas otorgadas, aisladamente o en concurrencia con las otras concedidas por administraciones públicas o privadas, estatales o extranjeras, exceda del coste de la actividad a desarrollar por el beneficiario, procederá el reintegro del exceso obtenido sobre el coste del concepto

#### 17. NORMATIVA APLICABLE.

Las ayudas municipales objeto de las presente bases se regirá, además por lo dispuesto en las mismas, por la Ordenanza Reguladora de Concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Urretxu.

En todo lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación la Ley 38/2001 de 17 de noviembre General de Subvenciones (y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006



EGINBIDEA: Oinarri hauek Udalbatzak 2025eko martxoaren 5ean onartu zituen.

DILIGENCIA: Para hacer constar que las presentes Bases fueron aprobadas por el Ayuntamiento Pleno el 5 de marzo de 2025.

Idazkariak,